


[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
557. zkia.
XIII. urtea
2006ko urtarrilaren 27a


Eneko Loiola, pilotaria

# «Norbera baino pilotari onagoekin entrenatuz hobetzen da»

[ EZAGUNAK LAGUN ] ANDONI EGAÑA • [ KIROLA ] MUGERZA KROSA

# 2006ko Gida Komertziala

Elgoibar, Altzola eta Mendaro




[b] BARREN

**Iazko gidan zure negozioko telefonoa agertu ez bazen, deitu zenbaki honetara:**

**943 74 37 04**

---

autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

## Informatika nire enpresarako: Askea ala ordaindutakoa?

**Nire enpresarako softwarea** hautatzerakoan zein da kontuan izan behar dudan irizpidea? Zein **sistema eragile** hautatuko dut? Ze **nabigatzaile?,** bestelako ze **programa ofimatiko? Zure enpresan** doan **erabiltzeko** tresnak dituen **CDa** ere **emango dizugu.**

**Deha Barrena**
otsailak 2
ELGOIBAR
Makina Erremintaren Institutua (IMH)

Ordutegia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:
**943 747 314**
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:
Miramon Empresa Digitala

Sustatzaileak.
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
SPRI



# ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

ALAIN ULAZIA

Zelako suertea. Urte beniak bele berria ekarri ez dit ba! Liburu bat darabilkit eskuartean. Ez dakit ezagutzen duzun Alain. Joxerra Garziaren "Kurrin kurrun vitae. Maisu baten ikarak eta ostikadak". lagun batek gomendatu zidan eta oraindik erdia baino irakurri ez dudan arren gogoeta ugari sortu dizkit. Joxerrak irakasle eta ikasle gisa bizi izan dituen gora-beherekin batera hainbat eta hainbat hausnarketa jasotzen ditu (Joxerrak barkatuko al dit bere liburuaren hain sinopsi sinplea egitegatik). Baina noan hariral frakurketa nire ikasle garaiaren errepasoa egiteko ballogarri izaten ari da. Orriak pasatu ahala, hantxe ikusi ditut ia ahaztuta neuzkan ikaskideak, parreak eta negarrak, maisu eta irakasleak..

Bitxia da horrenbeste urte ostean nere oroimenak egin duen "garbitasuna". Apenas gogoratzen ditut ikasgaiaren apunteak hitzez irakurtzen zituztenen izenak. Ez dut beraien jarrera kritikatzen jardungo. Irakasle eskasak zirela jakitea nahikoa penitentzia izan daitekeela uste dut. Utzikeriak irakasleari autoritatea kentzen dio. Eta horixe da nire oroitzapen saltsa honen ostean ateratako ondorioa. Gogoan ditudan irakasleak denetatik zorrotzenak zirela; bai nirekin, ikaslearekin, baina batez ere bere buruarekin. Datu gisa honakoa gehitu nahi nuke. Unibertsitatean pasatako zazpi urteren ostean gogoratzen ditudan irakasleak zenbatzeko aski ditudala nere bi eskuetako atzamarak. Zoritxarrez

**«Utzikeriak irakasleari autoritatea kentzen dio»**

ALAITZ

**«Zorrotz korrontea ebakiz Xabi maixua dut gogoan»**

AlAIN

Bai Alaitz, memoriak garbiketak egin ohi ditu, askotan halabeharrez, baina bestetan Ala beharrez. Ala, Jesuskrist edota Marijuanarenak, gehienetan beldur aurpegiko DiruMoneyarenak, edozein jainko-jainkosaren arrak, ahazterazten dizkigu haurtzarako gertaera printza ñimiñoak. Igual, aipatzen duzun zorroztasuna edukazioaren jainkobakarrak ezarritako ibai horretan kontrakorrontean zihoazen arraintxo buruzorrotzena litzateke. Nik, zorrotz korrontea ebakiz, Xabi maixua dut gogoan, bere tximaluzeak airean, bizikletan eta furgoneta gorriko lehiatilan, belaunak ubeldu gabe hezi nahi zituzten Mendaroko belalunaldi gazteei adarra joz, 'imajinazivan lehixuak" irekiz handik salto egiteko. Tipo hark nigan zerbait salbatu zuela dut inpresio sakon.

Hilario Errementaik kontatu zidan pasadizo bat ekarri nahi nuke hona, Xabik borrokatu zuen beldurraren eta kijotadaren eskolaren ilustragarri. Hilario eta lagunak gazteak zirelarik apaizak neskatan kontuz ibiltzeko esan ei zien, bestela infernura joango zirela 'eternidadeako'. Etemidade hori zenbat denbong ote zen inork ez jakin eta norbait ausartu zen apaizari galdetzera. Eta honek zera erantzun: kBadakizue zeuek nola enarak udaberrixan etortzen dian Mendaroa. Eternidadia zera da, enarek urteroko pasian Amoko haitza heguakin ikutu ta haitza gastatzeko bihar dan denboria.'

*HEZ.frZi\ii_EENI LEHEN* HEL_Rux_v" "uTobiDil KriNK Pg-ErTA72,C7% Dr

D. de Montmollin

Atal hauek ez dira
beste, pluraltasuna i

## Irakurle, axerat-ek, 30 min eskatzen dizkizu:

Sctbin, bihotz-bihotzez pozten gera zu kalian ikustiaz! Madriletik bueltatzean esan zenuen moduan... lan handia dago egiteko, Euskal Preso eta Errefuxiatuak etxera itzul daitezen.

Horregatik, abenduaren 30ean Plaza Handian egin genuen Etxerat-en elkarretaratzera hurbildu zineten danori, bariku honetan bueltatzeko eskatu nahi dizuegu. Plaza Handira hurbildu ez, eta urtarrilaren lehen zapatuan Bilboko Euskal Preso Politikoen aldeko manifestaziora joandako guztiori ere, bariku honetan, Plaza Handira etortzeko eskatu nahi dizuegu.

Hilabete honetan, 19.30ean izango da elkarretaratzea, 20.30ean Mendaron Jokin Urain preso politikoaren 20. urteurrena dela eta, omenalditxo bat egingo zaiolako frontoian.

Hilabete honetan, Madrilgo legea betetzeko eskatu nahi dugu elkarretaratzean: Zigorraren 3/4ak bete dituzten EPPK-ko kideak eta gaisorik dauden EPPK-ko kideak kalera!

Besterik gabe, 30 minututxoko kontzentraziora etor zaitezen eskatuz... gero arte.

**ELGOIBARK0 ETXERAT**

## Errepresioa ez da bideal PNV lotu zure txakurrakl

Aurreko astean errepresioa zer den berriz ere argi eta garbi ikusi ahal izan genuen euskal gazteriak. Beste behin, herri honen "segurtasunerako" dagoen poliziak euskal gazte bat atxilotu, bera bizi den etxea miatu eta Madrilera eraman zuen. Beste behin gazte batek herri honen alde borroka egitea kriminalizatu eta errepresioaren bidez isilarazi nahi izan dute.

Argi eta garbi gelditu da bakearen alde daudela esaten ahoa betetzen duten horiek bake biderako inolako asmorik ez dutela, eta horretarako errepresioaren bide guztiak erabiltzeko prest daudela.

PNVk berriz ere bere txakurrak erabili ditu euskal gazteriaren ahotsa isiltzeko asmoarektn. Ez duzue benetako bakea bilatzen, ez duzue Euskal Herriaren alde lan egiteko asmorik, behin eta berriz Espainiakoen menpe egoteko keinuak egiten dituzue, zuen hitzak eta zuen ekintzak ez datoz bat, eta gu ez gaituzue engainatuko.

Ez dugu zuek planteatzen duzuen herrian sinisten, ez dugu gizartearen eskubideak eta gazteriaren eskubideak behin eta berriz zapalduak dituen herrian sinisten, gure eskubideak defendatuko ditugu, eta horretarako zein bide jarraitu argi dugu.

Independentzia aldarrikatuko dugu, borrokaz aske biziz ukatu dizkiguzuen eremuak berreskuratuko ditugu, zuen errepresioa behin eta berriz salatuko dugu eta apurka-apurka, borrokaz gure eskubideak errespetatuak izango diren herria eraikiko dugu, Euskal Herri independente, sozialista eta euskalduna defendatu eta eraikiko dugu. Borrokaz aske bizizlIndependentzial

**ELGOIBARK0 SEGI**

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTIT7_AK ataletan adierazitakoen erantzukizunik Eskuritzak ondo identiflatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu dotu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.


[blarren

LAGUNI1AltEA Eir- KAZIMALAK lur.hou A^denhg, PURtIZITATEA Eld,r InCnk !11..KEIAIZAlltA
KOABORAVASIAX Altd. 01'9^9 Dor,-141,1C5n,p, 1,9110 Gcf17-1. 1
LCIM.11109:1, Aurhoo Meri Mcwcrogr., tvr,Hca Mend14, Ar, Okbmlxtl, Ikxm Unzor. Kek, KE, Urrbzuno, Uon;
Wienc,Alut Vws ESkEPAZAHARPACkAien C.f(14:1KILL:Lik INPRINATEGIAGYtu TIVa 4420 nk5. LEGi GOEL1111155-10.38/92 ISSN 1139 1855

ttSDANOBAT GOITI ORUPO DANOLIT /■■ESTARTA 44 11Cild

gizarte ekintza

Argibrotrailea,

ELGOILSRKO IZARRA

flgo■bo,ko Udalok Eusko Juurlanizoko Kuhuro Scijak eio Forto Alcluncirok diruz logc.rnduluko alclizkorin

## KEXAK

• Herriko zebra-bide asko ez dira ondo ikusten eta jendeak ez ditu errespetatzen: "San Inazio kalean, aldapa amaitzen den tokian zebra-bide bat dago. Ez da ikusi ere egiten eta auto gidariek ez dute errespetatzen. Santa Ana kaleko Eroski aurrean gauza bera gertatzen da, eta Goiko Errota zubian ere bai. Inaugurazio egunerako oso polita jarri zuten dena, agintariak etorri ziren eta dena ondo zegoen, baina orain zebra-bideko marrak ez dira ikusten. Oinezkoentzako garrantzitsuak dira zebra-bideak eta egoera onean egon behar dutela uste dut".



• San Migelerako bidean asfaltoa oso egoera txarrean dago: "San Migelen baserri asko dago eta errepidean uste baino jende gehiago ibiltzen da. Bizkaiko aldea hobeto dago, baina Gipuzkoakoa oso gaizki dago, dena zuloz beteta. Zona batzutan saiatu dira galipota bota eta konpontzen, baina hori parixeak jartzea besterik ez da. Bada konpontzeko garaia!".



• Santa Ana kaiean ez dago aparkatzeko lekurik: "Errotonda gaineko aparkalekuan obrak egiten hasi direnetik, Santa Ana kalean ez dago aparkatzeko lekurik. Gainera, herriko jaiak direnean txurro saltzaileak bere etxea gure kaleko aparkalekuan jartzen du, 6 edo 7 aparkaleku beretzat hartuz. Sigmara joan gaitezke aparkatzera, baina orain han ere obretan daude, eta gainera, bertan aparkatu izan dugunean lapurretak jasan behar izan ditugu. Nire ustez, txurreroa gutxienez, herriko beste tokiren batera bidali beharko lukete".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: banew :elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantzn, 2
20870 ELGO1BAR
t'klb 9.45 74 41 12

## komikia

Zfir




Ko49.t 044

# Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

## Euskal-ikastola eta mendizaletasuna

Aurreko astean esan genizuen Felix Etxeberria, Jesus Larrañaga, Miren Vallejo, Lourdes Alberdi eta Begoña Andonegik euskal-ikastola sortu zutela, eta 10-14 urte bitarteko gaztetxoekin hasi zirela lanean 1958-59an. Euskal-ikastolaren helburua, euskara irakastea baino gehiago, Elgoibarko neska-mutifen artean euskal giroa piztea zen. Astean pare bat aldiz elkartzen ziren (irakasleak lanetik eta umeak eskolatik irten ostean), eta ordu eta erdiko saioak egiten zituzten. Gainera, euskal-ikastolara joaten zirenak gustura egoteko, erregaluak banatzen zituzten umeen artean. Herriko dendariek emandakoak izaten ziren erregaluak.

Euskal giroa berpizteko beste ekimen garrantzitsu bat, mendizaletasuna izan zen. Mendizaietasunak eragin handia izan zuen Euskal Herrian euskararen indartze prozesuan. *"Mendira igotziak askatasunaz amets egitten lagatzen zaban. Mendixan garraxink haundixena egitteko aukeria zauan, inon bildurrik gabe".* Mendi batzuek, Urbiak adibidez, beren egun berezia izaten zuten. Gerra osteko lehen ikurrinak ere mendi tontorretan ipini omen ziren. Elgoibarko euskaltzaleak ere ia igandero joaten ziren inguruko mendietara: Sargoatera, Arratera, fru-Iturrira eta, batez ere, San Pedrora. Jolasen eta kantuen bidez, haurrei euskara eta Euskal Herria maitatzen erakustea zen orduko euskalizaleen desioa.

Baina umeekin lanean hasi aurretik, nagusien edo helduen mundua oso erdaldunduta zegoela konturatu ziren herriko euskaltzaleak. Hala, erdaldunak euskalduntzeko eta euskaldunak alfabetatzeko premiaz jabetuta, 1956an ekin zioten oraindik ere indarrean dagoen lanari: helduen euskalcluntze-alfabetatzeari. Hauxe da, hain zuzen ere, hurrengo asteetan ikusiko dugun.



## BEGOÑA ANDONEGI

GAU ESKOLAKo IKASLEA 1960AN

*Txikitatik euskararen jabe izan den arren, euskara ikasle eta gerora irakaslea ere izan da Begona Andonegi.*

**• Euskara hobetzeko hasi zinen gau-eskolan.**

Bai. Nahiko makala nintzen euskaraz, etxean eta herrion erderaz aritzeko joera baitzegoen. Seme-alabak ikastolan hasi zirenean tresna baten falta somatu nuen, euskarareno. Horrela hasi nintzen gau-eskolan, apaizak egon zirenean, 60. hamarkada hasieran-edo. Seme-alabak pixka bat koskortu zirenean, berriz, Ikastc>lako gau eskolan hasi nintzen 77. urte inguruan.

**• Zer izan zen zailena?**

Gogorrena joskera menperatzea zen. Umeekin nire kontura berba egitera ohituta nengoen eta erdarara moldatzen nuen nire euskara, aditza lehenengo eta beste dena atzetik eta horrelakoak. Umeekin elkarrizketa nornal bat izateko arazoak nituen: aditzarekin, aditzaren denborarekin (iragana, oraina, geroo), baldintzarekin, e.a..

**• Euskara irakastera iritsi zinen baina?**

Ikastola asalu baino lehen ume txikieneri euskara erakusten ibilia naiz Irakasteko materialik ez, eta otoitzen bitartez eta hiztegiak erabiliz moldatzen ginen. Denetarik zegoen, ume batzuk nik baino askoz gehiago zekiten euskaraz eta beste batzuk tantarik ere ez. Geroago AEKn ere egin nituen 3 urte irakasle moduan eta bi urte gehiago bulego lanetan.

**• Nola ikusten duzu euskara Elgoibarren?**

Elgoibarren ohitura handia daukagu erderaz egiteko. Txikitako lagunak ditut, euskaldunak, baina erderarako joera daukagu. Batzutan gure artean ere esaten dugu, baina zertan ari gara! Kosta egiten da bizi guztiko ohiturak baztertzea.

lik

E4E12/4
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan **Mugerza, 3** 'zr **943 74** 12 56 - (mobila) **609 53 23 83**

AKORDATZEN



# 401. MANOLO UNZILLA

1934an jaioa

t
nt

## «Gerria (111)»

ekention 7 hillabete egon giñan erregian modura. Egin zaban uda at ikusgarrixa, epel-epela. Eta gero, tropak alzera barrura. Ofensibia egin zeben, eta Ondarrun zouden tropak eta Lekeittion gorrixak. Etorri zanian abantzia, ba, koño, alde egin bihar. Alde egitteko, ba, barkua. Peskero txiki horretakua, Sartu giñan barkuan, lehenengo aldiz, gaiñera, eta kriston ifsaso fxarra atera jakun. Egongo giñan 15 lagun, Elgoibarko hiru famifixa-takuak Danok zuluan sartuta, anboa kaja artian. Gora eta behera dana bota biharrian ibilli ostian, barko bat urten zan aber nora guazen galdezka: "Sartu Elantxobera, sartu Elanbcoberall, esaten zigun.

Bilbora jutia zan gure asmua, baiña Elantxoben sartu bihar izan gendun. Elantxonbeko portuan sartu, eta juan giñan Batzokira. Teia bakarrik zaguan. Te berua hartu, eta hurrengo egunian gure lehengusuari abixou zion aittak. Militanu zan orduan, eta kamioia zakan. Etorri zan kamioiakin Elanbcobera eta handikan eruan giñuzen Bilbora, etxe partikular batera. Santolaya-eta zagozen bertan. Han egon giñan egun baten, eta gure aittak eta billau zaben txalet bat modukua Algortan, ortu eta guzti, kriston txaleta, eta hara juan giñan. Bairia jatekorik ez, eta han bi hillabetian pasau genduzen kristonak. Kriston etxia baiña jatekorik ez. Armero egoten zan aitta tropekin retaguardian, armak, fusillak edo ametralladorak arreglatzen ibilizen zan. Behin etoni zan aitta oillaskua eta konejuakin. Sekula 1salaka banketerik ez dot egiñl



## GURE BERBAK1

### Egittura aipagarri batzuk (3)

**Dala** materakuan, aukeran gitxi samar erabiltzen dan egittura bat ekarri nahi dot gaur; hori bai, zeiñ hillabete dan badakigunian bakarrik erabilli leike, bistan dan bezela:

*- Pilarika eguna, oktubrian ez dok ba izaten? - Bai. – Hilla(re)n hamabixan da.*

Elkarrizk n (oktubrian) gertatzen dalako edo, bestela, urria lehenago aittatu dalako esaten da hori egitturiori hola. Data emateko, ez da zuzena ondorengo egittura hau, esaldi baten barruan txertatuta emanda behintzat (bigarrena, bai):

*- Ekaiñak I3an luango gara Urkiolara, santuari eskatzera nobixo bana. (EZ)*
*- Ekaiñaren 13an juango gara Urkiolara, santuari eskatzera nobixo bana. (BAI)*

kaiñak 3, Maiatzak 10 eta holakuak solte (esaldi batian txertatu gabe) erabiltzen diranian bakarrik dira zuzenak: karteletan (ikuskizunen baten data ematerakuan), konparazio batera:

*- - Broken Flowers (Jim Jamiusch)*
*- Eguna: Abenduak 27 (Abenduaren 27a ere bai)*
*- Ordua: 22:15*

*Jesus Mari Makazaga*



* IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
* MULTIKOPISTAK
* FOTOKOPIADORAK
* PLANOEN BIRREGILEAK
* ERLOJU INDUSTRIALAK
* MARRAZKETA MATERIALA
* INFORMATIKA
* FAX

PIEKIHOOM
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

40:) CONON VILRACHRO

San flake, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 25 modulaa
Tel. 943 740 570

DEKORAZIOA
'tim
uen kolokazioa
ku ra: egur, alurninio, P V 1:, orakerra

lagun

## ANDONI EGAÑA

# «Oso lotsatia naiz baina ern berean ausarta»

**Orain dela hilabete pasa irabazi zuen laugarren aldiz Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Ordutik makina bat elkarrizketari erantzun dio, saio askotan izan da bertsotan, baita Elgoibarren ere. Andoni Egaña bertsolaria ezagutzen dugu gehienok, baina jakin nahi izan dugu nor den berisolariaren ostean gordetzen den agiriko gizon hori.**

Andoni Egaña entzunda bertsolaria datorkigu gogora. Nor da Andoni Egaña?

Zuzenean sorkuntzara dedikatzen den tipo bat; besteengan delegatzea gustuko ez duena.

Bizitzan atzera eginez, lehen etapa Zarautzen igaro zenuen. **Nola gogoratzen** duzu?

Artistek esaten dute ume eta nerabezaro okerra pasa zutela, baina nirea zoriontsua izan zen. Ikastolako lehenengo promoziokoa naiz eta irakasle on asko izan nituen. Ikasgelak ere bereziak ziren: garaje batetik terreno pila bat zituen etxe batera pasa ginen. Ez genuen frontoirik edo saskibaloi kantxarik izan, baina astoarena egiteko terreno libre pila bat bai.

• **Eta gaztaroa?**

14 eta 17 urte bitarteko ikasketak Zarautzen egin nituen, Antonianotan. Golpea izan zen: erderaz eskolak ematen hasi ginen; gainera, adinagatik eta egoera politikoagatik oso garai mugitua izan zen. Nagusiki piper egin nuen: asanbladetan parte hartu, grebak, manifak, hondartzara joan eta futbolean egin, elizara joan eta musean egin... Ondoren Donostiara joan nintzen UBI egitera eta ikasketak serio hartu nituen. UBIn irakasle izan nuen Piter Ansorenak esan zidan filologia egiteko, eta holaxe egin nuen.

• **Donostiarako joan-etornek ere erakutsi zizuten zerbait.**

Bai, bertsotan hor ikasi nuen, Zarautz eta Donostia arteko autobuseko joan-etorrietan nire buruarekin bakarka bertsotan eginez.

> **«Zarautz eta Donostia arteko joan etorrietan ikasi nuen bertsotan»**

• Soldaduzka **etorri zen** gero.

Erabaki nuen ez zidatela urtebete galduaraziko eta ka rrerako bosga rren u rtea soldaduzka egiten ari nintzela egin nuen. Arratsaldetan, gainontzeko soldaduak kantinara mozkortzera joaten zirenean, ni ikastera joaten nintzen.

Ondoren Gasteizera itzuli zinen?

Lehenengo lana Donostiako irakasle eskolan izan nuen. Hura amaituta, Gasteizen hamar urte egin nituen gutxi gorabehera. 85ean hasi nintzen lanean eta ia berehala 86ko txapelketa etorri zen.

• **Jubilazioa gazte hartu zenuen Gasteizen.**

Bai, 30 urterekin etxera etorri, bertan sormen lanak egin eta gainontzeko denbora bertsolaritzari eskaini diot ordutik.

• **Gaur egun ere bensolantza da zure ogibidea, ezta?**

Bai, eta ez da ogibide txarra. Ikasi behar da norbere bizimodua hortara egokitzen.

• **Nola** entrenatzen zara **bertsotarako?**

Zaila da esatea. Komiki bat irakurtzen ari garenean prestatzen ari gara, edo zerbaitekin aduratuta zaudenean. Irakurketa baliatzen dut, baita telebistako edozein programa ere; dena da prestakuniza gai, baldin eta ikasteko jarrera baldin badago.

• BECen 13.000 lagun eikartzeak erakutsi zuen bertsolaritza askok uste baino mundu zabalagoa dela...

Azken urteotan joan gara arloak irabaziz. Bertsolari ezberdin

asko dago eta bakoitzak publiko mota bat erakartzen du.

Inoiz geratu zara gairen baten aurrean zer esan jakin gabe?

Askotan. Zerbait esan, norbere lekuan eseritakoan maldizio pare bat bota eta hurrengorako zer esango nukeen pentsatzen dut. la jaialdiro pasatzen zaigu.

• **Azken hilabetean elkarrizketa asko egin dituzu. Nola daramazu hain mediatiko izatea?**

Zarautzen betiko paisajearen parte naiz. Kanpoan, berriz, normal; kultur lan bat egiten dudalako ezagutzen naute-eta. Txapeldun izatearen beste karga bat da errepresentazio lanak egitea: ohorezko sakea derbian... Ni lotsatia naiz berez, eta lotsati batek beti dauzka zailiasunak jende aurrean azaitzeko, eta jende aurrean azaldu besterik ez dudan garaian deskolokatu egiten naiz.

Taula gainekoak, ordea, ez dauka lotsarekin zerikusirik. Jendeak uste du koordenada berdinean daudela lotsatia eta koldarra eta beste a!dean lotsagabea eta ausarta; eta horiek nahastu egiten dira. Ni oso lotsatia naiz baina oso ausarta.

• **Kirola** ere gustuko duzu.

Hasten naizen gauza guztietan oso tematia naiz, eta kirola ere egiten dut beste gauzak



ahazteko. Azken lau urteotan sei maratoi egin ditut Aurten lesionatu nintzen eta utzi egin nuen, baina berriz hastekotan naiz. Kirola ederra da norbere buruari exigentziarik jarri ezean, eta nik ez dizkiot jartzen. Hortan erretzaile izatea abantaila da; giharretako lesiorik ez dut izaten, bularrak esku frenoa jartzen dit-eta.

## «Gazteen inguruan ibilita asko gaztetzen da bat»

• **Andoni Egañaren hainbat aurpegi ezagutu daugu. Nola jardun dezake pertsona batek horrelako erritmoan?**

Adin bakoitzean egin behar da gauza bakoitza. Ni 44 urterekin eta azken 20 urteetako erritmoarekin, beste sorkuntza mota baterako hobeto nago herriz herri presaka ibiltzeko baino. Hala ere, banekien kapela lortuz gero beste lau urte egin beharko nituela horrela. 30 urterekin erraz ibiitzen da batetik bestera, eta ni baita 44 urterekin ere. Gazteen inguruan ibilita asko gaztetzen da bat.

*Testua eta atgazkiak: Irati Agitteazaldegi*



## PROTAGONISTA



### IbanZubiaurre

Azken aste honetan jokatu da Reala eta Athletic-en arteko euskal derbia, eta honekin batera, Iban Zubiaurreren kasua berriz ere atera daJokalari mendaroarrak 1,5 milioi euro eskaini dizkio Realari bere kontratua apurtu eta libre geratzeko, baina talde txuri-urdinak guixiegi dela esan du eta ez du onartu. Iban Zubiaurrek egi n dituen adierazpenetan, bere kasua epaitegian bukatuko dela esan du. Akordiorik lortu ezean, datorren otsailaren 22an izango da epaiketa, eta epaileak ezarriko du Iban Zubiaurrek Realari eman beharko dion diru kopuruo.

## NOTIZ1A

# 127.029 euro inbertituko ditu Udalak Mupem enpresan Gaztetxea egiteko

Elgoibarko Udalak lehiaketa bidez aukeratu du Mupem enpresa zaharrean Gaztetxea egingo duen enpresa: Aikia Eraikuntzak S.L enpresa izango da, eta guztira 127.029 euro erabiliko dikr.



### 400m$^2$

Gaztetxe berriak 400m$^2$ko azalera izango du gutxi gora behera lokalaren sarrera errepidera ematen duen fatxadan egongo da. Eskailerak eta aldapa bidezko sarrera bat ere izango du ezinduentzako.

Lokal barruan bi gune bereiztuko dira: Erdigunean ekintza desberdinetarako gela bat jarriko da, bulego bat, sukaldea, egongela, biltegia, entseguetarako gela eta hiru komun, hauetako bi ezinduentzako izango dira. Bestalde, kontzertuetarako gunea, eszenatokia eta barra jarriko dira.

Aikia Eraikuntzak S.L. enpresak bi hilabeteko epea izango du Gaztetxeko obrak amaitzeko.

~11~11111

## ZENBAK(

**100**

Udaleko Bake Epaitegian esan digutenez, 100 ume jaio ziren Eigoibarren 2005. urtean, aurrekoan baino 7 gehiago. Horietatik 59 mutilak izan dira eta 41 neskak. Gurasoek aukeratutoko izenari dagokionean, mutiletan iker eta Danel izan dira nagusi, eta nesken artean Nahia eta Irati.

asteko ARGAZKI

si



San Roke eta Basarte auzoen artean egindako bide berriak irudi bitxi bat bistaratu digu. Hanclik pasiaran gindoazela, teilatu gainean sekulako bizitza dagoela ikusi genuen. Txabolak, ortuak, igerileku txiki bat... Eguzkiak bete-betean jotzen duen tokia da. Etxerako nekazal produktuak landatzeko leku ezin hobea. Bestalde, udan ez dago trena edo autoa hartu beharrik hondartzara joateko. Leku lasaia, eguzkitsua, bista ederrak... Elgoibarko teilatu gainean ote dago poradisua?

# Bost platanondo kendu dituzte Plaza Txikitik lurrazpiko kontenedoreak jartzeko



'goikparko Udalak Plaza Txikian 'zeuden bost platanondo kendu ilmobehar izan ditu lurrazpiko zabor kontenedoreak jartzeko. Joan zen ostiralean kendu zituzten zuhaitzak. Udaletik jakinarazi digutenez, beraien hasierako asmoa platanondo hauek Plaza Txikitik beste lekuren batera eramatea zen, baina ez zeuden egoera onean: mbarruko aldea erabat hutsik daukate eta ezin dira herriko beste lekuren batera eraman. Lehenago, antzerako kasu bat gertatu zen, eta Platanondo bat Albitxuriko bidera eraman zuten.

Giza Eskubideen parkeko platanus handia

Bestalder uholdeei eusteko depositua lurrazpian jartzeko egin diren obren ondorioz, Giza Eskubideen parkean dagoen platanus handiari sustrai nagusi gehienak moztu egin zitzaizkion, eta oreka galdu zuen. Haize handia dagoen egunetan nabari zen gehien bat, zuhaitza izugarri okertzen baitzen. Udaletik jakinarazi digutenez, istripuren bat gertatu ez dadin eta oinezkoen ziurtasuna bermatzeko asmoz, zuitaitz hori bota eta leku honetatik kendu egin dute.

## 111 1 1Kasun gigro eusk oso kezkagarria dela adierazi du

Embiouk lehentasunezkoa jo zuen udaletxeko hizkuntza politikan Osasun Zentruan euskararen normalizazio plon bat bideratzea. Datuak ikusita, Einbiouri guztiz kezkagarria iruditzen zaio Osasun Zentruko euskararen e urteotan egoerak onera egin beharrean, medikuen atalean eto haurtzointzaren atalean okerrera egin du". Bestalde, Einbiouk Osakidetzak euskararen normalizaziorako atera duen euskara plana oso eskaso dela azaldu du.

Osasun Etxearen egoera (2004-06 alciaketa) — Dalu k: Einbiou Hen Plarafoma

| | Medluak | | Haur zaintza | | Erizainak emagina ere) | | Harrera/adminis. | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2004 | 2006 | 2004 | 2006 | 2004 | 2006 | 2004 | 2006 |
| Euskaldunak | 3 | 2 | 2 | 1 | 6 | 7 | 4 | 5 |
| Ikasten | | 2 | | | - | 1 | - | 3 |
| Guztira | 10 | 10 | 2 | 2 | 11 | 12 | 10 | 10 |

## MOTZ-MOTZIAN

### Errotuloak euskaraz

Establezimenduetako errotulu nagusiak euskaraz jartzeko dirulaguntzak berritu egin ditu Udalak. Euskaro hutsea n idatzitake errotulua jartzen duen herritarrari, kostearen %40ko dirulaguntza emango zaio, gehienezko kopurua 230 eurokoa izanik. Orain arte, %30eko dirulaguntza eman izan du Udalak baina aurrerantzean dirulaguntza hori gehitzea erabaki du Euskara Batzordeak. informazio gehiago 943 744366 telefonoan, euskara@elgoibar.org helbidera mezu bat bidaliz edo Elgotbarko Udalaren (wwweigoibanorg) web gunean.

### Sabin Mendizabal fianizapean aske utzi dute

Sabin Mendizabal Lerun Txikiko bizi-laguna aske utzi dute 20.000 euroko fiantza ordaindu ostean. Arkauten bi egun inkomunikatuta egon ostean Madrilera eraman zulen. Orain behin-behineko askatasunean dago epaiketa egunera arte. 2003an Er-muko PPko egoitzon lehergailu bat jartzea leporatu diote eta 10-20 urte bitarteko kartzela zigorra jarri ahal diote,

Lerun Txikiko okupek esan digutenez, miaketa egunean bertako kide guz-tien gauza pertsonalak eraman zi-tuen Ertzaintzak (agendak, jantziak, telefonoak...). Honekin batera, Sabin Mendizabal etxero itzuli denetik ba-serri inguruan poliziaren presentzia nabari dela esan digute.

### Txankakuaren zozketa

Oraindik ez dira agertu Txankakua-ren zozketako irabazleak Hauek dira zenbaki sarituak eta erreserbak: 37.346 (39.298), 44.230 (76.344), 97254 (19.124), 46.937 (65.350), 29.455 (26.009), 63.341 (39.333), 96.334 (1.558), 47975 (706), 61.501 (78.289), 79.931 (36.633).

**Euskal Herriko turismoak gora egin du 2005ean.**

# Euskal Herriko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati?

**NIEVES FERNANDEZ**
Etxekoandrea
52 urte



"Lehenengo Donostiako alde zaharra, bertako pintxoak eta hondartza. Bilbora ere eramango nuke, eta Elgoibartik Mintxetako ingurunea eta Plaza Handia."

**CELSO BABARRO**
Mekanikoa
51 urte



eG

Kostaldera eramango nuke, Getarira, Donostiako alde zaharrera eta gero arrain on bat jatera. Elgoibartik Mintxetako ingurunea erakutsiko nioke."

**MAITE AIZPIRI**
Ikaslea
15 urte



"Donostia;Igeldo, hondartzak, alde zaharra eta dendak Aizkorrira ere eramango nuke, hemengo mendiak ezagutzeko. Elgoibar ez nioke erakutsiko."

**PEDRO OLAZABAL**
Mekanikoa
40 urte



Le henengo Donostia erakutsiko nioke eta gero kostalde guztia, baita Bizkaiko kostaldea ere, eta Bilbo hiriburua ere bai. Elgoibarren Plaza Handi ingurua."

# [ BAI ala EZ?

## Ikusten al duzu Reala edo Athletic-a 2. maialara jaisteko arriskurik?

**BAI %75**

s•Bai, eta batez ere Athleticen kasuan; baina Reala ere ez dago arriskutik kanpo. Aurten Osasuna bakarrik dago osasuntsu."

**%25**

..Erakutsitako joko-mailagatik jaistea merezi dute, baina hiru talde eskasago hondoratuko diren esperantza daukat. Ekaitza igarotzean, garai hobeak etortzea espero dut."

Datorren **asterako....** Lan istripuetan 125 langile hil ziren iaz Hego Euskal Herrian.

**Ikusten al diozu irtenbiderik lan istripuen arazoari?**

**Bidali SMS bat:**

**BARREN (espazioa) ER**

**Kresala**
HOTELR



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean.** Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.cnsiohotelescom

## GOMENDIOA



**Ainhoa Galarraga**

AINHOA

Fisioterapeuto

# Prebentzioa



Prebentzioal trakasle batek zioen bezala, sendagai hoberena, prebentzioa da. Zenbat kostatzen zaigun egunari hogei bat minutu lapurtu eta gure gorputzari eskeintzea. Egunero ariketak eginaz lesio asko bazter ditzakegu.

Ez dugu zertan kirolariak izan behar gure giharreei malgutasuna eman eta gure gorputza arintzeko. Hori bai, suabe, giharrari behar duen denbora eman diezaiogun.

Gorputzeko giharren artean desoreka bat sotzen da, batzuk indartuz eta beste batzuk ahulduz. Honek tensioak eta minak sortzen ditu, eta luzarora desgastea eta deformazioa ekar ditzake. Batzuetan arrazoia beste bat izan daitekeen arren, luzaketek asko lagunduko digute patologia hoietara ez heltzen edo atzeratzen.

Horrez gain, posturak ere zaindu behar ditugu, lanean adibidez, posizio konkretu batzutan zenbat ordu pasa ditzakegu! Eta denbora hortan gihar berdinak dira lanean daudenak, azkenean, nekatuz eta minduz.

Beraz, has gaitezen ba kontzien-tzia hartzen eta gure gorputza zaintzen, honek eskertuko digu eta!

# [ OSASUN G1DA

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta ososun ikastaldiak)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30
***Mendaro***
Astelehen eta asteazkeneta n: 10-11:30/15-16:30
Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTI

Ikus **Optiko-optometrista**
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 - Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

**Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

### HORTZ KLINIKAK

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com weba: wwwirale.com

Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75
Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30

### FISTOTE APIA

oterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxez etxeko zerbitzua eskeinizen da.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)
Jausoro, 6 behea

(Minarentzako tratamenclua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlctjazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### PODOLOGOAK

Iñaki Rivero
San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

### 186 odol ateraldi egin ziren 2005ean

2005. urtean 186 odol ateraldi egin ziren Mendaron, iaz baino lau gehiago. 2003, urtean 169 egin ziren, beraz, odol ateraldien joera goranzkoa dela esan daiteke. Hala ere, Mendaroko Odol Emaileen Elkarteak herritar guztiei, batez ere, gozteei dei egiten die odola emateka, izan ere, beraien helburua 2006. urtean 210 odol ateraldi lortzea da-eta. Mendaroko Elkarteak 100 odol emaile inguru eta 34 bazkide ditu. 1984. urtean sortu zen elkartea, eta ordutik hona jende askok hartu du parte. Elkartekoek urte hauetan laguntza eskaini dieten guztiak eskertu nahi dituzte.

### Herriko Enparantzan zirkulazioa debekatuta

Seinaleak argi eta garlDi adierazten duen arren, auzotar eta kanpotar askok ez du errespetatzen asteburu eta jai egunetan Herriko Enparantzan zirkulatzeko debekua. Mendaroko Udalak kexa ugari jaso ditu gai honen inguruan, eta arazoak berdin jarraitzen badu, neurri gogorragoak hartu beharko dituela jakinarazi du, legea betetzeko isunak jarriz.

SANTA AGEDA

# Trititateko eliza berritzeko bilduko du dirua Santa Agedako koroak

Otsailaren 4an aterako dira mendaroarrak santa eskean. Ohitura zaharrari jarraituz, kopiari eta trikitilariekin aterako dira, kale eta baserriak kantuz janztera. Goizeko 8:30ean bilduko dira udaletxe aurrean. Aurten egingo duten diru bilketa Trititateko eliza berritzeko izango da. Mendarozabal auzoan dagoen eliza hau Mendaroko zaharrenetarikoa da eta egoera kaskarrean dago. Santa Ageda koroko antolatzaileek herritar guzitei dei egiten diete santa eskean parte hartzeko.



## Jokin Urain presoa omenduko dute gaur iluntzean



Jokin Urain "Kixkur" Mendaroko preso politikoak 20 urte bete ditu kartzelan eta gaur iluntzean omenaldia egingo diote. 20:30ean hasiko da ekitaldi politikoa Goñati pilotalekuan, eta ondoren bertso afaria egongo da Aizpe Elkartean.

Igandean, hilaren 29an, Dueñaseko espetxera marka egingo da.

Gabonetan, bestalde, presoen aldeko Olentzeroren kalejira egin zen Mendaron eta Alkorta baserrian, Jokinen etxean, kantaldia egin zuten.



### Gazte guneko obrak bukatu dira

2002. urtearen amaieran hasi ziren mojen kapera zaharra gazte gune bilokatzeko obrak, eta azkenean bukatu dira. 200 lagunentzako ekitaldi aretoa, musikarako hainbat gela eta gazte gunea prest daude dagoeneko. Hori guztia modurik egokienean kudeatzeko aukerak aztertzen ari dira gazte talde bot eta Udala.



## KONTXI URAIN

Taxista

# «Emakumeok gizonezkoek baino hobeto gidatzen dugu»

*15 urte daramatza Kontxt Urainen taxista moduan lanean. Bera da Mendaroko taxista bakarra. Taxista eta emakumea. Bitxia, ezta? Esan cligunez, gero eta emakume gehiago ikusten da taxiak gidatzen. Kontxik gidatzea oso gustuko duela altortu digu, eta kamioia gidatzeko baimena ere badaukolo esan digu. Solasalditxo polita izan dugu berarekin.*



«15 urte hauetan ez dut sekula istripurik izan»



• Nolatan taxista?
Mendaroko Udalak taxista plaza bat atera zuen lehiaketara eta aurkeztu egin nitzen. Ni eta beste gizon bat aurkeztu ginen. Hasieran berari eman zioten, baina hark taxi lizentzia saltzeko asmoa zeukan eta ez zuen postua hartu. Bera lehenagotik ere taxista moduan ibilitakoa zen eta ni baino puntu gehiago zeuzkan. Azkenean baina, postua nireizat izan zen.

Erraz atera al zenuen gida **bai-mena?**
Taxia gidatzeko baimen berezia behar da, eta hori ateratzerakoan kamioi gida baimena ere atera nuen. Dirudiena baino errazagoa da kamioia gidatzea. Goian zoaz, dena oso ondo ikusten da eta errepideko handiena izateak lasaitasuna ematen du. Gustuko dut gidatzea.

**• Taxista eta emakumea. Ez zaudete asko lanbide honetan, ezta?**
Eibarren, Ermuan eta Azpeitin badaude taxista emakumeak. Badaukagu lekua lanbide honetan, batez ere, herri txikietan. Hiriburu handietan gauez lan egiteko beharbada arriskutsuagoa da emakumea izatea, baina hemen ez.

Zuk ez al duzu gauez lanik egiten?
Telefonoa 24 orduz daukat gainean, telefonotik zintzilik bizi naiz, baina gauez lan egitea oso guixitan tokatu zait Uda inguruan izaten da gehiena, inguruetako herrietako festak hasten direnean.

**• Bilbon hildako taxistaren gaiak kezkatzen al zaitu?**
Pertsona bezala kezkatzen nau, baina nire [anerako ez dit eragiten, lasai joaten naiz lanera.

**• Emakumeak gaizki gidatzen dutenaren fama dute. Zer uste duzu?**
Ez nago ados. Nire ustez gizonezkoek baino hobeto gidatzen dugu. lasaiagoak eta suabeagoak gara. Nik 15 urte hauetan ez dut sekula istripurik eduki. Baserrirako bide estuan noizbait susturen bat izan dut, baina bidaiariekin noala inoiz ere ez.

**• 15 urteotan izango duzu anekdotarik, ezta?**
Bai, asko! Hasiberritan gizon bat eraman nuen kostaldeko herri batero. Gaua zen. Iritsi ginenean 2.000 pezeta zirela esan nion. Bat-batean "pasamontañas" bat jantzi zuen eta 5.000 pezetara arte zain egoteko esan zidan. Bere emaztea beste gizon batekin zebilela esan zioten eta hori egiaztatzea nahi zuen. Sekulako sustua hartu nuen, baina gero errieta ere egin nion, emaztea zaintzea ez zegoela ondo esanez, konfiantza eman behar zitzaiola. Azkenean badirudi dena gezurra zela eta gustura gelditu zen gizona.

# GAZTIA NAIZ

## lotsaGABE

Ibai Leon 17 urte



ᵣer eskatien liczᵘ ,1619g gc,nidozenca

Dena°nd° 'cclec et giteko Irenbi er nskalagunarekn bada hobel

Hotzan Gauaalaeguna? aurre

Bero-bero eg n o kalean, t

Gaua, batez ere, larunbat gauak.

**Oporretan ioateko toki bat?**
Lidan hondanza eta juerga dagoen tokira, neguan elurretara.

**Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?**
Laguneri.

**Zertarako nahiko zenuke ikustezina izatea?**
Besteek nitaz zer esaten duten jakiteko.

**Zein famaturekin pasatuko zenuke gau bat?**
Elsa Patakirekin.

**Loteria tokatuz gero...**

Bidaiatu, ianaz ez arduratu, gauza mordoa erosi...

***Mutil batek*** maite **zaitu** esaten **badizu?**

*Puff,* ez dakit zer eg ° neuleeesna!

Zerk beidurt

*Zein* int *inguruk*8ak *gaizki* egoteak.

De, entzuter

*gaind-tU cudala* gusta*ttk0 litZatZU ke?*

*Edolonizi*

Erabat hu,a e dh *sik*

*fic*

*ustcuz* Pesim ci sta *erdi 6 eteta?*

*11 iord.* d@ *azke* cde *pelik*u a?

Ez bat 2 1o *futh*oi kölean *ikusi* nuen.

EtorkfZU ez estoo.

Etorkizunerako planik?

Batxilergoa bukatu eta gero modu ore 6 at egitea.

# 5-akiTek0..

## DESKONTURAKO TXARTELAK GAZTE INFORMAZIO BULEGOAN

### ATERPEKIDE IXARTEIA

Aterpetarako txartel motak:

Aterpezale Gaztea: (14-29 ude), 5 euro (2,5 euro Gazte Txartelarektn).

Aterpezale Heldua: (30 urtetik crurrera), 11 euro.

Familiakoa: (Bikotea eta 18 urtetik bellerako seme-alabak), 22 euro.

Taldea: (Gurxienez 10 pertsona). 15 euro.

Aterpebeen inguruko informazioa honako helbidean aurki dezakezu: www.reaj.com




### NAZIOARTEKO GAZTE TXARTELA

Nazioarieka Gazle Txartela mundu guztian erabil dezakezu deskontuak lortzeko ostatuetan, museoetan, galerbtart, kulturguneetan etab. Ikasleak ez diren 25 urtetik beherako gazteek egin dezaketa

### NAZIOARTEKO IRAKASLE TXARTELA

Ikosleekin doazen irakasleek ere deskontuak izan ditzaten pentsatuta dago.

Baldintzak:

Agiri bat irakasle zarela ziurtatzen duena.

Argazki bat

8 euro ordaindu.




### 1KASLEAREN NAZIOARTEKO TXARTELA

Mu nciu osoa n onartuta ko ikasle-agiri bakorra da. Ikastea baldin bazara btartel honi esker zerbitzu eta abantaila bereziez gozatzeko aukera izango cluzu. Honen bidez, deskontuak lortuko dituzu museotako sarroretan, kulturguneetan, historiako lekuetan, nazioarteko telefono deietan, ]atetxeetan, garroioetan...






Lan dosierrak, bekak, lehiaketak.., guzti honen inguruko informazioa

## Gurasoentzako formaziorako VIII. jardunaldiak

Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak, "Gurasoentzako formazioarako VIII. jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi hauetan hainbat hitzaldi eskainiko dituzte haur eta gurasoen arteko harremanean adituak diren pertsonek. Lehen saioa otsailaren lean, eguaztenean, izango da Kultur Etxeko hilzaldi gelan. Honako hauek dira landuko diren gaiak: hezitzea zer den, familiaren eragina eta haur psikologia. Luis Cerron hizlari izango den saioa 18:30ean hasiko da. Gainerako ikastetxe eta instituzio guztiak daude gonbidatuta. Hurrengo saioa, otsailaren 8an, izango da.

## Info7 irrati berriari buruzko mahai informatiboak Nafarroa Plazan

Azti-Begia elkarteak Euskal Herrian dagoen iritzi aniztasunaren isla izan, eta izaera informatiboa izango duen irrati nazionala antolatu du. Hain zuzen, gaur, urfarrilaren 27an, hasiko da emititzen. Info7 deituko da izaera modernoa eta teknika berriak baliatuko dituen irratia, nahiz eta hasieran internef bidez bakarrik hedatuko den (www.info7conn).

FMz emititzeko baimena lortzea dute helburu eta bi hilabeteren buruan satelitez emitituko dute. Proiektua indartu, mamitu eta kalitate handiagoko irratia lortzea da antolatzaileen xedea. Hori dela-eta, bazkide kanpaina jarri dute martxan. Elgoibarren mahai informatiboak jarriko dituzte gaur, hilak 27, 18:30etatik aurrera Nafarroa Plazan. Bertan aurkituko duzue informazio gehiago.

ihr irratia 7

Z1NE KLUBEKO EMANALDI BERRIAK

# Ordutegi berria Ongarri Zine Klubeko emanaldietan



2006ko Zine Klubeko emanaldien berrikuntza nagusia ordutegi aldaketa izango da. Hemendik aurrera 21:30ean hasiko dira zine klubeko filmak, 22:15ean beharrean. Inguruko herrietako zine kluben ildoa eta zine zaletu zenbaiten aholkua jarraitu dute erabakia hartzerako orduan, eta udara arte, gufxienez, hala mantenduko dute. lsabel Coixeten "La vida secreta de las palabras" filmak irekiko du urtea zine klubari dagokionez Otsailaren 2an, eguenean, iritsiko da zinegle kataluiniarraren azken proposamena. Otsailaren 9an, berriz, Andre Techine frantziarraren "Fugitivos" pelikula emango dute. Filma biek gerren eta indarkeriaren ondorioak aztertzen dituzte, ikuspuntu bereziarekin, ordea, izkina batetik helduz gerraren gaia. Pertsonen arteko harremanetan eta emozioen munduan murgiltzen dira. Hauen ostean botako dituzten bi filmek tematika sozialagoa darabilte eta errealismo gordina jarraituz osatuak izan dira. Belgika aldetik Dardenne anaien "El niñoir iritsiko da otsailaren 16an eta Vincenzo Marraren 'Viento de tierra" otsailaren 23an. Lehenak Cannesko Sari Nagusia jaso zuen iaz eta besteak Veneziako eia Xixongo zinemaldietako sari nagusiak

## KEU"ren disko berrian parte hartuko du lon Gurrutxaga



Arima Beltza taldeko ahois eta bate jole elgoibartarrak "KELY'ren disko berri kolaboratuko du. Jesus Mari Agirretx ezkutatzen da "KElfren atzean, 'Etsai banda lekeitiarreko, gitorjole ondairuta Disko berria ari da grabatzen Andoa Garate estudioan, Haritz Arreg teknikariarekin batera. Otsailar erdialdean kaleratuko du diskoa "UE izenpean eta martxoan hasiko da kontzertuak ematen. Taldea osatzeko bi lagun bereziren laguntza izango du: Mikel Arakistain ("Etsarak", "Fjord") baxuan lon Gurrutxaga baterian.

MUGERZA KROSA

# Kamathi keniarrak spnntean irabazi zion Joseph tanzaniarran




3.000 lagunetik gora bildu ziren Mintxetan Charles Kamathik Mugerza krosa nola irabazten zuen zuzenean ikusteko. Iazko taktika bera errepikatuz, Fabiano Joseph tanzaniarrak lasterketaren erntmoa ezarri zuen hasieratik, eta Kamathi izan zen erritmo biziari eutsi zion bakarra. Azken metrotan bizkorragoa den jakitun, tanzaniarrari ihes egiten ez lagatzea zen keniarraren taktika. Goitik behera bete ziren Kamathiren usteak 400 metroren faltan jo zuen erasoa eta hiru segundu atera zizkion he1mugan Joseph-i. Azken hau erori ere egin zen 500 metroren faltan, baina azkar demonio altxa zen. Aurreko egunetan egindako euriagatik zeharo lokaztuta zegoen ibilbidea, igerilekuen gunean, batez ere. Juan Carlos de la Ossa izan zen lehen europearra, eta animu gehien jaso zituena, laugarren postuan. Gutxigatik ez zuen harrapatu Deriba Merga etiopiarra. Kamathik keniara itzuliko dela adierazi zuen lasterketa amaieran. Fukuokan (Japonia) jokatuko den Munduko Kros Txapelketarako sailkapena lortzen saiatuko da bertan, nahiz eta txartelak ez dauden merke. Jhon Ngugi handiaren etnia berekoa -Kikuyu- da 27 urteko polizia ohi hau.

Emakumezkoetan lau etiopiarrak ziren faboritoak, baina lauretatik ezezagunenak, Workitu Ayanuk, jantzi zuen txapela. 18 urteko etiopiarrak hiru segunduko aidea atera zion Meselech Melkanu herrikideari. Azken hau laugarren izan zen iazko Munduko Txapelketan. Aniko Kalovics hungariarrak lasterketa ausarta egin zuen eta poclium-a izan zen saria. Guztira 400 atletatik gora aritu ziren Mintxetan eta antolatzaileak gustura azaldu dira aurtengo edizioarekin. "Eguraldi ona, lasterketa lehiatuak eta ikusle asko izan genituen" adierazi zuen Zigor Diez Mintxetako komunikazio arduradunak. DVD guztiak agortu ziren eta 1000 atera zituzten.







## ENEKO LOIOLA PILOTARIA

# «Gustu txarra laga zidan San Antonetako finala herritarren aurrean galtzeak»



*Iaz Julian Retegiren semeak laga zuen finaletik kanpo, aurten San Anton Txapelketako finala tokatu zuen Eneko Loiolak (21 urte) Baez 11 donostiarra bikotekide zuela. Finalean 22 eta 9 galdu zuten Bellosoren eta Oteizaren aurrean. Pilota munduan lekua egin nabian dabil sanmigeldarra.*

**► San Anton Txapelketako finalak ihes egin zizun?**

Bai, eta pena itzeia dut. Ondo amaitzea dela balio duena diote, baina ondo hasieak ere badu garrantzia: hasiera kaskarrak partida baldintzatu zuen. Urduri kantxaratu eta gozatu nuen lehen pilotakada goiko bmpara! Konfidantza galdu nuen. Halabearrez, arriskatzen hasi eta ez genuen zorterik izan. Belloso eta Oteizari, berriz, dena ondo atera zitzaien. Gustu txarra laga zidan finalak Horrenbeste jende ni ikustera joan eta... naizena baino gehiago enakutsi nahi eta naizena ere eman ez Ez nago garrantzi honetako partidak jokatzera ohituta, baina irakaspen ona izan da.

**► Elgoibarren pilotari bat ateratzea posible al da ?**

Mugitu beharra dago, maila batetik aurrera beste pilota, frontoi eta pilotarien aurka jokatzera ohitu. Norbera baino pilotari hobeekin entrenatuz, beti dago zer hobetua. Atano Illan Hemani aldeko pilotariekin (Erroizenea, Arruti...) entrenatzen aritua naiz ela denbora laburrean hobekuntza nabaritu nuen. Zoritxarrez, eskuak izorratu eta lau hilabetean geldirik egon nintzen. Orain berriz itzultzeko asmoa dut.

Zer berezitasun ditu Ikastolako frontoiak?

Sakeak pisua hartzen du atzeko koadroetan eta eskua sartuz gero, gora joaten dira pilotak. Gerriko posturaz baliatu behar denez, indar handia behar da aurrelariari pilota kentzeko, amama lagaz gero, jai baitago aurrelari hauekin. Neunia hartua diot fronloi honi, baina handiagoetan hobeto moldatzen natz. Ikastolako frontoiak badu bere xarma, baina Elgotbar baino makina bat heni txikiagok dituzte frontoi handiagoak: Zestoak, Aizamazabalek..

► San Anton Tomeoa eskaparate ona izan daiteke, ezta?

Esperantza hori daukat, tkuskatzaileren batek San Antonetan jokatzen ikusi izana eta datorren urteko DV Torneoan edo besteren batean jokatzeko deitzea. Kiloak hartu ditut, eta hauekin batera zartada ere bai; maila onean nagoela uste dut Iaz, esaterako, DV Tomeoan bizpairu aldiz ordezko gisa joan nintzen.

**► Pilotari profesional asko pasa dira San Anton Tomeofik (irujo, Ruiz, Barriola, Beloki—) ?**

Oso urrun ikusten dut aukera hori, baina i!usioa ez da ŕFzali behar. Horren urrun ikusten ez dudana, afizionatu mailako puntako pilotariekin eta arduradunekin lortu dudan harremanari esker, beraiekin entrenatzen hastea da. Eman beharreko lehen pausua, alegia. Iazko urteko pena dut. Leku askotatik deitu zidaten jokatzeko, baina ezetzkoa eman behar eskuko mina zela-eta.

**«Kiloak hartu ditut eta hauekin batera zartada»**

ESPAINIAKO MENDI FEDERAZIOAREN SARIAK

# Aipamena Aritza Monasteriorentzat



Espainiako Mendi Federazioak 2005. urteko jarduera interesgarrienen artean sartu zuen Aritza Monasteriok Peruko Trapecio (5.644 m.) mendian egindako igoera. Urteko jarduera onena saritzen duen Urrezko Pioleta inori ez ematea erabaki dute epaimahaia osatzen duten kideek, baina zazpi mendi jarduera azpimarratu eta diruz lagundu ditu, tortean Huarazen (Peru) bizi den elgoibariarrarena. "Lowe" izeneko bidea (800 m ED) igo zuten Aritzak eta bere lagun esloveriarrek: Pavle Kozjek, Miha Lampreht eta Branko Ivanek joan zen ekainean. 22 ordu behar izan zituzten igoera burutzeka

## Atxotegirentzat promesa mailako txapela

Eneko Loiola elgoibortarra San Anton Pilota Txapelketako txapelaren atarian geratu bazen ere, Lagunak Eskolaka beste pilotari batek, Aitor Atxotegi plaentxiarrak, promesa mailako txapela jantzi zuen. Atxotegik Otxotorena zornotzarrarekin osatu zuen bikotea eta 22 eta 9 irabazi zieten Uriarteri eta Aldaperj. Hain zuzen, axotorena atzelari dominatzailea, aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena.



## 1gor Castañares nagusi Ondarretako hondartzan



Castañares anaiek sasojko hasi dut urtea. Donastjako Antiguo auzoko jaie botruan zaldi losterketa antolatu zuen j batzordeak Ondarretako hondartza Zaldun elgoibartarrak primeran moldat ziren hondartzako area gainean eta Ig Castañaresek irabazi zuen prob "Hodei" zaldiaren gainean. Ana gazteak, losuk, hirugarren postu eskurotu zuen "Bizkor" zaldiarekin.

## Motrizitate Garapena Uretan ikastaraci

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Motrizitate Garapena Uretan ikastaroa antolatu du Olaizaga kiroldegian. Ikastaroo otsailaren 2an hasiko da. Olatz Beitia fisioterapeutak zuzenduko ditu saioak, maditzen eta eguenetan, 16:15etik 17:00etara. Bost eta zazpi urte bitarteko umeei zuzenduta dago ikastaroa.

Izenemateak Olaizaga kiroldegian egin daitezke urtarrilaren 31a baino lehen.

## EMAITZAK 1

FUTBOLA
Tolosa 1- Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 3 Mundarro 2 (Erreg.)
Elgoibar 1 - Eibar 4 (Jub.)
Elgoibar 4 Mutriku 0 (Kadi
EIgoibar 1- Eibar 3 (Inf, A)
Hondarribia 4- Elgoibar 2 (Inf. fidki)
Elgoibar 6 Eibar 1 9deb)

ESKUBALOIA
Urduliz 23 Tecnikelle 26 (Senior mut)
ANTT Soklan 27 - Hondarribi 27 (Senior. mut.)
Lojantzi 28 - Askartza 20 (Senior. nesk.)
Pneumax 20 - Bergara 18 (Jub. mul.}
Aia Zarautz 21 - Cometel 19 (Jub. nesk)
Tecnomeca 15 - Usurbil 27 (Kad. mul.)
Umobitza 24 - Gatz museoa 7 (Kad. mut)
Pagooga 16 - Eusk zarautz 24 (Kad. nesk.)
Mutriku 4 - Olalsa 22 (Inf.)

ESKU PILOTA
Udaberri Txapelketa
Andazpe 22 - Lagunak (Ulaild.) 17 (2. Nog.)
Lagunak (Aixoiegi/Portu.) 18 - Txapagain 22 (Jub.)
Beloki 22 - Lagunak 10 (liz./Arrizab.) (1. Jub.)
Lagunak (Arrib./Salegi) 15 • Zumaia 22 (2. Kad.)

## AGENDA

FUTBOLA Mintxelan
Zapatua, 28
12:00 Elgoibar Urki (Neskak)
16:30 Haundi - Sanktizi (3. maila)
Dornekia, 29
12:00 Elgoibar - Urola (Neskak F-8)

ESKU PILOTA Ikostolan
Udaberri Txapelketa
Barixakua, 27
21:15 Ingunak - Lizardi-Igeldo (2. jub.)
22:00 Lagunak -Anoilasuna (1. jub,)
22:45 Lagunak - lazkao (2. nog.)

ESKUBALOIA Kiroldegian
Zapatua, 28
19:00 Loiantzi - Galdakao (Senior. nesk}
Dornekla, 29
10:30 Aterpe - Pulpo (Inf. nesk.)
12:00 Pneumax - OET-BK1 (Jub. mut.)

## [ 1DARRAGA SARIAK

IDARRAGA KAFEAK **9.** SARIA
HAUNDIk0 jokabri erregularrena 05/06

| Jokalaria | Puntuak |
|---|---|
| 1. David Morais | 51 |
| 2. Navarrete | 36 |
| 3. Amiti | 30 |
| 4. Guinea | 27 |
| 5. Iribar | 26 |

SALMENTA

> Etxea salgai Errekindin. 4 logela, sukc:Idea eta egongela. Balkot handi eta eguzkitsua. Igogailua. Altzariekin. 34 milioi.
W 943 01 40 18/
645 73 11 25

►Luxuzko pisua salgai Elgoibarko Plaza Handian. 100m$^2$.
W 619 409 273

> Etxea salgai Irliguez de Karkizano kalean. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera.
w 686 26 27 27

> Madalan estreinatu gabe dagoen etxea salgai. 3 logela, egongela handia, bi komun, sukalde-jangela eta garajea.
.0 696 79 41 81

> Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. 3 logela, bi komun, egongela, sukaldea. Igogailua, berogailu zentrala eta ganbara.
12 696 84 50 61

> Pisua salgai Santa Klaran. 2 logela, komuna, egongela, sukaldea eta despentsa. Betogailu zentrala eta leiho beniak 7 urte. Sartzeko moduan. a 943 74 23 08

Urruzuno kalean, etxebizitza berritua salgai. Bizitzera sarizeko moduan. Prezio eskuragarria. Iluntzean edo gauen deitu.
w 690 70 38 85

ALOKAIRUA

> Pisua osatzeko pertsona bat behar da. 610 45 85 52

> Pisua hartuko genuke alokairuan. *ck* 943 53 17 33

> Pisua hartuko nuke alokairuan.
W 626 91 49 04 (Rosa)

> Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. 686 475 563

►Pertsona batentzako pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke.
0. 677 097 015

> Ametsa parean dagoen garajea alokatzen da. 615 78 78 57

> Pista Beitzean garaje marraduna alokatzen da. tr2 699 81 25 66

> Garaje marraduna salgai Leku Ederreko 4. salairuan.
w 660 042 159

> lokal bat hartuko genuke alokairuan. cs 943 53 14 69 (Alex)

> Lokal bat hartuko genuke alokairuan karabana bat gordetzeko.
w 943 74 29 52

> Ford Mondeo GLX SS-AU autoa salgai. Egoera onean. ITV pasatu beni, beti garajean.
W 605 70 17 15

> Kotxea saltzen dut Seat Leon FR Sport TDI. 150 zaldiko indarra. Gris plateatua. 609 888 653

> 598x605x865 tamainako Fagor izozkailua salgai.
w 605 71 91 98 (Itziar)

> Estreinatu gabeko sukaldea salgai. Prezia onean.
12 635 74 71 45

►"Colnago" bizikleta salgai. C50 karbonozkoa. Campagnolo Record. 10 abiadura.
tri 609 888 653

> Soinu handi bat salgai. Egoera onean, 943 74 19 30

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.
Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 € . Autoak 8 Eta bestelakoak 5 Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

ESKAERA

• Neska gaztea garbiketa lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. w 943 53 12 70
• Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, garbiketa lanak, ostalaritza... tr.•.• 626 91 49 04 **(Rosa)**
• Mutila kamarero, igeltsero, elektrikari,.. lanetarako prest.
'W 652 72 94 00
• Mutila kamarero, igeltsero, sukaldari laguntzaile... lanetarako prest. sUt 626 198 659
• Mutila kamarero lanetarako prest. Gt 686 475 563
- Klase partikularrak emateen dira. lehen eta bigarren hezkuntza. **GT** 943 53 10 54
• Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.
w 646 235 195
• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. -0 697 97 50 26
• Mutila lanerako prest: kamarero, garbitzatle, sukaldart laguntzatle- 660 927 566
• Neska goizez lan egiteko prest
0. 696 79 41 07
• Emakumea gauez Mendaroko ospitalean gaixoak zaintzeko prest. Ct' 686 108 552
• Bi neska lanerako prest: tabernan, nagusiak edo umeak zaintzeko. Cit 943 53 12 70
• Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lona egiteko prest. **943 74 88 99/ 685 72 48 61**
• Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 21. 620 701 323
• Emakumea garbiketa lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest.
0. 699576107

ESKAINTZA

• Eibarko musika taldeak abeslaria behar du. Musika mota: Berri Txarrak, Soad, Metallica...
W 653 748 999/
659 385 864

1/1"

Langai

Euskal Lan ZerbiLzua

• Donostiako enpresak erizaina behar du. Erref. 162006000602
• Arrasateko enpresak mekanikako ingeniari teknikoa behar du.
Erref. 162005013086
• Debako enpresak CNC langilea behar du.
Erref. 162005013416
• Zarautzeko enpresak tomurako langilea behar du.
Erref. 162006000603
• Arrasateko enpresak inkesta-Izaileak behar ditu.
Erref. 1620056000750
• Eskoriatzako enpresak zainizailea behar du.
Erref. 162006001021
• Arrasateko enpresak topografoa behar du.
Erref. 1620056001015
• Eibarko enpresak promotorea behar du. Erref. 162006001014
• Bergarako enpresak autocad irakaslea behar du.
Erref. 1620056000975
• Azpeitiko enpresak ingeles irakaslea behar du.
Erref. 162006000974
• Mutrikuko enpresak administratia behar du.
Erref. 162006000786
• Arrasateko enpresak elektronikako ingentaria behar du.
Erref. 162006000700
• Bergarako enpresak eleidromekanikoa behar du.
Erref. 162006000900

Houtagai moduan sartzea eskatu nahi boduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langar-k Elgoibarren dituen zentru laguntzalle hauetako botera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio **juarisii)** 943 74 80 19 edo IMH (Nora Rarnen) 943 74 41 32 telefonora,

## ABISUAK

• Sofa zaharrcsk eta telebistaren bat hartuko genituzke.
**Q** 627 10 49 15
• Pedazko eraztuna gaIdu dut Nettora bidean, turkesazko harribitxiak ditu. Oroigarri berezia da niretzat. **943 74 20 06 (Aurora)**
• Sofa zaharrak hartuko nttuzke.
S2 628 527 325
• Urtarrilaren 10ean Madalako errotondan istripua izan nuen, eguerdian. lekukoen bila nabil.
et 680 319 002

## [ OKINDEGIA ]




## FARMAZIAK

**GUARDIA 24 O:DJZ**

27 tbañez
28 Bidasolo
29 Bidasolo
30 Eixeberria *(Sonta Ana)*
31 Femandez
1 Yudego
2 Zabaleta
3 Erxeberna *(Errosario)*

** Beti dago guardiako formazia Eibar/Etniva zonalclean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel 943 75 61 42

ZABALETA
Kaleborren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## AUTOBUSAK

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
igandeak eta laiegunakt 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
*Peso: 902 10 12 10*

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak ela joiegunak: 12:30, I7:30, 19:30, 20:45.
*PESA: 902 10 12 10*

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, ordu erdika.Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak. 7:15ean hasila, orduka. Azkena; 20:15.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**MENDAROKO OSPITALA ELGOIBAR**
Asiegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua ela jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

18:30 INFO7 1RRATIAREN INGURUKO MAHAI INFORMATIBOAK
Nafarroa Plazan

19:00 KASTOIAKO JAIALDIA
Ikastolako frontoion

08:30 MENDI 1RTEERA
Nora: Ernio (Azpeitio)
Antolatzailea:Morkaiko M.E.
Ineera: Plaza Handitik

10:00 MENDI IRTEERA
Nora: Andutz (610 m.) Ilziar
Antolatzailea: Elgoiloar Ikostola





0211440.1/1,4 ZS. Catbp,
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA


PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2. 3.sotoa T: 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

18:30 HITZALDIA
Gaia: Hezitzea zer den, familiaren eragina eta haur psikologia
Luis Cerron
Kultur Ebeko hitzaldi gelan
Antoiatzailea: Herri Eskolako Gurasoen Elkartea

22:00 ANTZERKIA
An tzezia na: "Extras"
Taldea: Maskarada Antzerki Taldea
Herriko Antzokian
Sarrerak, aurrez, Kultur Etxean eros dai tezke, goizez, 8,5 eurotan




# ZINE KARTELDEGIA 171

ELGOIBAR, HERRIKO ANTZOKIAN
«Ojala fuera cierto»
27, barixakua: 22:15
28, zapatua: 19:00-22:15
29, domekia: 19:00-22:15
*30, astelehena: 21:30
«Bibi la pequeria bruja»
29, eguena: 16:30
«La vida secreta de las palabras»
*2, eguena: 21:30

*Adili ordutegi berria

EIBAR, UNTZAGA
«Match Point»
27, barixakua: 19:30-22:15
28, zapatua: 17:00-19:30-22:15
29, domekia: 17:00-19:30-22:15
30, astelehena: 19:30-22:15
31, martitzena: 19:30-22:15
1, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR,
«EI infierno espera
27, barixakua: 19:30-22:15
28, zapatua: 17:00-19:30-22:15
29, domekia: 17:00-19:30-22:15
30, astelehena: 19:30-22:15
31, martitzena: 19:30-22:15
1, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzuktzunik.

# SINICIPSIAK

## «Ojala fuera cierto»



Zuzendaria: Mark Waters.
Antzezleak: Reese Witherspoon, Mark Ruffalo.
Istripu batek koma egoeran laga duen San Frantziskoko (Kalifomia) mediku gaztea da Lauren. Artifizialki bizirik mantentzen duten bitc:rtean, Arthur izeneko gizon gazte bat bere etxe berrira aidatu da. Bere logelo berria estreinatzen ari dela, bapatean, neska bat ageduko da bertan. Neska Ariburrek ikusi eta entzun dezakeeloka harrituta dctgo. Arthurrentzat, beniz, zentzugabea da egoera eta alde eg,iteko eskatuko dio. Neskak bere istorion entzuteko enegutuko dio.

## «La vida secreta de las palabras» (Z.K.)

Zuzendaria: Isabel Coixet.
Antzezleak: Sarah Polley, Tim Robbins.
Itsasoaren erdian bakartutako leku batean: petroleo plataforma batean, non gizonek bakanik lan egiten duten, istripu larri bat jazo da. Emakume bakarti efa misteriotsu bat, zeina bere iragana ahaziu guran dabilen, denbora baterako itsu geratu den gizona zaintzera bidaliko dute plataformara. Bien artean, inthitate arraroa; sekretuz, egiez, gezurrez, umorez' eta minez betetako eriazioa sortuko da. Eta guztiareni gainetik amodioaren indarra, egoerarik penagarrieH: netan ere aurrera ateratzen den amodioa.

# Atyprn hp2ira



urtek Od rretra t uzkihar hau Charo et cudrreartoeklagan digu. Elgoibarko bi neska
ageri argazkian. Egun h zuten atera
zuten argazkia. Ikusten den bezala, garai hartako jantziek ez daukate gaur egunekoekin zerikusirik Esan digutenez, bazeukaten lagun artean txango eta irteerak egiteko ohitura. Ahal zutenean lagun artean bildu eta egun pasa joaten ziren. Gogora dezagun zein diren argazkian ageri diren neska polit hauek.

Goian, ezkerretik eskumara: Maite Unzueta, Mg Lucia Arrieta eta Merche Lopez.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: Edurne Aranburu, Mg Kontxi Zuazubizkar, Amaia Mujika eta Charo Escudero.



I. URTEURRENA

2005eko urtarrilaren 18an, 71 urte zituela hil zen

*Julian Gallestegi Basauriren*

oroimenez urteurreneko meza izango da,

igandean, hilak 29, goizeko 11:00etan Parrokian,

Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.




SIMMER
Sagardotegia
Jatetxea
SAIZAR
Kale-zahar Auzoa. 39
2 O 7 0
USURBIL
P ?Is< A
Tel. 943 362 228
www.sidrassaizarbcom

ANTZERKIA

11111111111111111111111111111111111111111111111111111111




ez mieleeemeemeemeemeezemenowee

[i2120ferse12 cz&l/eixo lisusicz

Otsailak 5, igandea

16 :30ean

Herriko Antzokian





SAREA

KULTURA SAILA FORU ALDUNDIA EUSKO JAURLARITZA